

Musika-ikasketa Profesionaletan sartzeko probak
Ebaluazio-irizpideak
Biola

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

BIOLA

Ebaluazio-prozedura

NOIZ	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren deialdian ezarritako datan.
ZER	Entzunaldiak, Kontserbatorioko web orrian argiratuta dagoen sarrera-proben aginduak ezartzen dituzten edukiaz osatuta egongo dira.
NORK	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren deialdiak ezarritako irakasleak.

Ebaluazio-irizpideak

1– Giharren indarra eta arnasketa, instrumentua behar bezala jotzera egokitzeko erabiltzea.

Irizpide honekin, mugimendu-koordinazioa mendean hartu, eta instrumentua jotzeak eskatzen duen giharren ezinbesteko indarren eta instrumentua jotzean kontrola galtzea ekarriko duten tentsioak saihesteko behar den erlaxazio-mailaren arteko oreka ebaluatu nahi dira.

2– Estudioak eta obrak jotzen direnean, horiek menderatzen direla egiaztatzea alderdi teknikoak eta musikalak banandu gabe.

Irizpide honek, interpretazio egokia lortzeko behar diren ezagutza tekniko eta teorikoak elkarren artean lotzeko gaitasuna ebaluatzen du.

3– Afinazioan eta instrumentuak dituen soinu posibilitateak erabiltzeko gaitasunean entzumen- sentikortasuna frogatzea.

Irizpide honen bidez, instrumentuaren ezaugarriak, funtzionamendu mekanikoa eta dituen posibilitateen erabilpenen ezagutza neurtu nahi da.

4– Garai eta estilo ezberdinetako obrak interpretatzea.

Irizpide honen bitartez, ikasleek, euren instrumentuaren errepertorioaren eta errepertorio honen obra nagusien inguruan duten ezagutza ebaluatu nahi da, bai eta dagozkion irizpide estetikoak aplikatzeko sentsibilitate eta irudimen maila ere.

5– Buruz interpretatzea.

Irizpide honen bidez, ikasleek obrak zenbat menderatzen eta ulertzen duten baloratzen da, bai eta obra horien soinu-emaitzari buruzko kontzentrazio-gaitasuna ere.

6– Testu musikalak onartuko dituen malgutasun-mugen barruan interpretatzeko beharrezko den autonomia erakustea.

Irizpide honek, kontzeptu pertsonal estilistikoa eta, testua errespetatuz, interpretazio-askatasuna ebaluatzen ditu.